



Bizkaibusek osatzen dute hiribizkaia

Bizkaia da gurea eta gurea da Bizkaia

Maurice Ravel

EL BOSQUE DE GRIMM

9, 10, 11 | Maiatzak /
Mayo 2026



A miñaga Antzokiak eta ABAO Bilbo Operak elkarlanean antolatzen dute /
Una colaboración del Teatro Arriaga y ABAO Bilbao Opera



LA MAQUINÉ

EL BOSQUE DE GRIMM

Pianorako ikuskizuna
Maurice Ravelen musika



GIDA DIDAKTIKOA

LA MAQUINÉ

"Laranja rik inoiz ikusi ez duenak ez du sekula laranja eskatuko. Gure eginkizuna da laranja ezagutaraztea eta grina eragitea".

*Andrei Sajao.
Fisikari nuklearra eta Bakearen Nobel Saria.*

Gida praktiko honek irakasleei lagundu nahi die, ikasleak beren adinaren arabera presta ditzaten emanaldirako; izan ere, helburu du sarrera- edo prestaketa-lanak egitea (gazteek agertokian ikustea espero dutena aintzat hartuta), bai eta *El bosque de Grimm* ikuskizunaz gozatzen eta hura ulertzen laguntzea ere. Horrenbestez, tresna lagungarria izan nahi du, ikuskizuna ikusi aurreko zein osteko lanean. Horren harira, irakasle bakoitzak gida honetako edukiak hautatzeko eta beraren behar zehatzetara egokitzeko aukera izango du.

Lau ataletan egituratuta dago: ikuskizunaren, musikagilearen eta antzezleen gainera informazioa, hezkuntza-helburuen atala, ikasleentzako jarduerak (irakasleak koordinatuak) eta material osagarria.



El bosque de Grimm 4 urtetik gorako haurrentzako eta familientzako musika-ikuskizuna da. Charles Perraultek eta Grimm anaiek bildutako maitagarrien ipuinetako giroa du abiapuntu, eta Maurice Ravel musikagile ezagunaren *Ma mère l'Oye* (Ama Antzara) musika-konposizioa baliatzen du.

Ikuskizunak ez du testurik, eta musika-partituraren bitartez egiten du aurrera: pianoa zuzenean jotzen da, eta, antzezpena egiteko, keinu-antzerkia, txotxongiloak eta proiektzioak erabiltzen dira. Haur-ipuinak oholtzan agertzeko era estilizatua eta poetikoa da, eta belaunaldiz belaunaldi transmitituriko tradiziozko ipuin ezagunetako giro eta une nagusiak irudikatzen ditu: *Txanogorritxo*, *Erpurutxo*, *Edurnezuri* edo *Errauskine*.

La Maquiné-ren sortzaile Joaquín Casanovasen eta Elisa Ramosen ikuskizunak xalotasunera itzularazten gaitu. Publikoak zinez atsegingo du obra gozo hau, guztiok ezagutzen ditugun ipuinen berrazterketa garaikidea, musika lagun.

ARGUMENTUA *El bosque de Grimm*

Ikuskizunaren izenburuak (*El bosque de Grimm*) ipuin guztien abiaunea dakar gogora. Alegiazko basoa da, non ipuinetako pertsonaiak elkarrekin bizi, galdu eta bertan barrena ibiltzen diren. Baina otso beldurgarria ere hortxe dago, ezkutuan. "Behin batean..." esaldi magikoak emango dio hasiera guztiari...

Argumentua soila da: pertsonaia ezagunetako batzuk (esate baterako, *Txanogorritxo*, *Erpurutxo* eta *Edurnezuri*) elkarrekin bizi dira basoan, eta otso gaiztoak denak jan nahi ditu. Lortuko du, baina *Txanogorritxok* otsoaren sabeletik askatuko ditu.

Egitura dramatikoa: irudien eta musikaren bidezko kontaketa

Txikitatik, umeek irudiak irakurtzen dituzte: ipuinetakoak, marrazkiak, kartelak... eta, ikuspegi subjektiboa oinarri, interpretatu egiten dituzte. Irudiaren irakurketaren ikasketak berezko ezaugarriak ditu, ezberdinak beste hizkuntza-moten bereizgarrien aldean. Haurrek irudiekin duten zuzeneko harremana da ikusmen-irakurketaren abiapuntua, eta behatuz ikasten dute.

Ikuskizuna esketx edo eszena laburretan garatzen da, eta, otsoa lotura, batetik bestera pertsonaiak aldatuz joango dira. Ikusleak eszenak aztertuko ditu, ikuskizunaren amaieran osatuko den puzzlearen piezak, hain zuzen.

Ikuskizunaren forma eta egitura ipuin gehienek komunean dituzten kodeetan oinarritzen dira, eta irudi iradokitzaileak aurkeztuko dizkiete umei, irudimena egituratzeko nahiz ikuskizunaren ikuspegia osatzeko.

Basoko etxetxea, Txanogorritxoren txano gorria, Errauskineren oinetakoa, Edurnezuriren sagarra, Amaorde maltzuraren ispilua edo Erpurutxok basoan ez galtzeko lurrera botatzen dituen ogi-mamiak sinboloak dira, eta umeen arreta pizten dute eszenan ikusten ari diren horren ezagutzaz baliatuta.


Testurik gabeko ikuskizuna izanik, mugimenduaren dramaturgia sortu da, eta, hori lortzeko, erabateko garrantzia eman zaio partiturari (bertako elementu guztiek lan osoa eratzen dute). Dramaturgia José López-Montes musikagile eta musika-lan honen moldatzailearekin osatu da, konpainiako kideekin elkarlan estuan, eta Maurice Ravelen *aparteko piezen haur-arimari eutsi zaio, hitzik esan gabe*.



MUSIKAGILEA

MAURICE RAVEL (Frantzia, 1875 – 1937)

XX. mendeko musikagile frantziarra izan zen. Impresionismoarekin maiz lotua, bere lanari estilo neoklasiko ausarta dario, bai eta, zenbaitetan, espresionismoaren ezaugarriak ere. Halaber, herentzia konplexuaren eta pianorako zein orkestrarako musika-aurkikuntzen emaitza da. Orkestrazioaren maisutza eta artisau zorrotza jotzen da Ravel, zeinak perfekzio formala landu zuen, baina gizatasuna eta adierazkortasuna alboratu gabe. Le Roberten hitzetan, musikagile frantziarra «adimenaren joko sotilenak eta bihotzaren berotasunik ezkutuenak» erakusteagatik nabarmendu zen.



Musikazaleek moldakortasun eta sen handiko musikagile gisa gogoratzen dute Ravel. Faktore askok eragin zuten bere musika-ibilbidean; hala, zenbait biograforen iritziz, euskaldun jatorriak eta lehengo abesti espainiarrez jositako haurtzaroak bere musika-ekoizpena baldintzatu zuten. Amak sehaska-kantak abestu ohi zizkion gaztelaniaz, eta aitak behar egin zuen lantegietako makina zoragarrien soinu eta erritmo berriak ezagutzera bultzatu zuen.

Musikagile eklektikoetan eklektikoena, Ravelek etekina atera zion jatorri guztietako musika-motek eragiten zioten interesari. Euskal Herriak eragin nabaria izan zuen bere musika-iruditerian (*Trio en la mineur* -Hirukotea la txikian-), baina are nabariagoa Espainiak (*Habanera* -Habanera-, *Pavane pour une infante défunte* -Hildako infantarentzako pabana-, *Rapsodie espagnole* -Rapsodia espainiarra-, *Boléro* -Boleroa-, *Don Quichotte á Dulcinée* -On Kixotek Dultzineari-). Sormen-iturri biek nazioarteko ospea erdiesten lagundu zioten, eta erritmoarekin eta musika herrikoiekin maitemindutako musikariaren irudia sendotu zuten. Halere, izan zituen inspirazio-iturri gehiago, besteak beste: Ekialdea (*Shéhérazade* -Xerezade-, *Introduction et Allegro* -Sarrera eta Allegroa-, *Ma Mère l'Oye* -Ama Antzara-), Grezia (*Daphnis et Chloé* -Dafnis eta Cloe-, *Cinq mélodies populaires grecques* -Greziako bost doinu herrikoi-) eta ijitoen musika (*Tzigane* -Tzigane-). Horiez gain, musika afro-estatubatuarra ere liluratu zuen Ravel (1928ko bira amerikarrean, Gershwinen doinu horiek ezagutzen lagundu zion). Hala, musika horretatik eratorritako hainbat ukitu erantsi zien bere azken sormen-garaiko lanei; esate baterako, ragtimea (*L'Enfant et les Sortilège* -Haurra eta sorginkeriak-), bluesa (*Sonate pour violon et piano* -Biolinerako eta pianorako sonata-) eta jazzaren soinu-ezaugarriak (*Concerto en sol majeur* -Kontzertua sol handian-, *Concerto per le main gauche* -Ezkerreko eskurako kontzertua-).

MAURICE RAVEL EN MA MÈRE L'OYE (AMA ANTZARA)

Ipuin herrikoiak historiako musikagile paregabekoen inspirazio-iturri izan dira. Hala, hainbat musika-errepertorio topa daitezke “haur-musika” izendapena jaso duen sailaren baitan: gehienak oso estilo soilari jarraiki eratu dira, eta erabilgarriak izatea dute helburu (ikuspegi artistikotik bakarrik aztertuta, oro har, haurrei gehiegi bideratuta daude). Aldiz, beste lan batzuen asmoa da umeek gogoko izatea eta haiek entretenitzea. Haatik, egon badago musikagileek konposaturiko bestelako errepertorio-mota bat ere: haurren arima bereganatzeko edo gogora ekartzeko eginak dira. Egoera estetiko horrek komunikazioa bermatzen du entzulearekin, eta, bereziki, haurrekin. Maurice Ravel nabarmendu beharra dago azken atal horren barruan; izan ere, leuntasun handiz jorratu zuen arloa.

Maurice Ravelen *Ma Mère l'Oye* hitzik erabili gabe haurren arima iradoki, deskribatu eta bereganatzen duen lan-errepertorio horri dagokio. Oraingo honetan, baina, jomuga ez da poesia eta umeen lañotasuna iradokitzea, baizik eta haurrek berezkoa duten fantasiaz eta kondairez beteriko mundua eta ipuinaren munduarekin duten lotura.

Pieza berezi honen jatorria bitxia da. Ravel Godebski senar-emazteen laguna zen, eta bikoteak 6 urteko alaba bat eta 7 urteko seme bat zituen: Mimie eta Jean. Ravelek biziki maite zituen umeak, eta, sarritan, istorioak kontatzen zizkien. Haurrak goiz hasi ziren musika ikasten, eta Ravelek, haien bost ipuin kutunetakoak abiapuntu, lau eskuz jotzeko pianorako obra bat konposatu zien. Hori dela eta, *Ma Mère l'Oye* lanaren argumentua maitagarrien ipuinetan, *Txanogorritxo*, *Loti Ederra*, *Erpurutxo* eta *Ederra eta Piztia* obretan oinarrituta dago.

Beste musikagile askok ez bezala, Ravelek aintzat hartu zituen haurrak, gutxietsi gabe, eta, umeentzako musika idatzi zuenean, bere talentuaz eta teknikarik onenaz baliatu zen. *Ma Mère l'Oye* haurrei begirako partiturarik onenetakotzat jotzen da, Sergei Prokofieven *Peru eta otsoa* (Петя и волк, errusieraz) lanaz batera.

.

IKUSKIZUNAREN SORTZAILEAK

LA MAQUINÉ / Joaquín Casanova eta Elisa Ramos



2008tik aurrera, La Maquinéren sortzaile Joaquín Casanova eta Elisa Ramos buru-belarri aritu dira kalitatezko ikuskizunak antolatzen, eta, egun, haur eta gazteentzako obrak prestatzen dituzten arte eszenikoen arloko konpainia nagusietakoa osatzen dute. La Maquinéren sormen-lanen ardatzak keinu- eta musika-hizkuntzak dira (hizkuntza plastikoa ahaztu gabe), eta ikuskizunek begirada garaikidea eta berezko zigilu argia dituzte. Konpainiaren lanek alderdi estetiko-plastiko nabarmen-nabarmena dute, non ikusgai dagoen osagai orok zentzu jakin bat duen, eta egituratzen da eszena behin eta berriz mihisetzat, irudiaren dramaturgiatzat, jotzen duen partitura baten bitartez.

LA MAQUINÉk itzal handiko entitateekin ekoitzi izan ditu ikuskizunak: Bartzelonako Gran Teatre del Liceu, Granadako Nazioarteko Musika eta Dantza Jaialdia, Alhambra eta Generalifeko Partzuergoa, Kultura Ekintzako Estatu Elkarte (SEAC, gaztelaniazko siglak), Kultura Ministerioa, Andaluziako Junta, Cervantes Institutua, La Caixa...

Konpainiaren ikuskizunak Espainiako antzoki eta jaialdi onenetan izan dira, eta Jabetza Publikoko Antzokien eta Entzunaretoen Espainiako Sareak La Maquinék orain biran dituen lan guztiak gomendatu ditu. Horrez gain, nazioarteko birak egin ditu Frantzian, Herbehereetan, Marokon eta Irlandan zehar.

El bosque de Grimm lanak 2013KO HAURRENTZAKO IKUSKIZUNIK ONENAREN ANDALUZIAKO ANTZERKI SARIA-SGAE jaso du.

.

MUSIKA-MOLDATZAILEA

José López-Montes



José López Montes Guadixen jaio zen, 1977an, eta bertan hasi zen musika ikasten, Dolores López Buenoren eskutik. Juan José Pérez Torrecillas izan zuen piano-irakasle, eta Granadako Musika Garaikidearen IV. Jardunaldietan egin zuen debuta konposizioaren arloan (*La mitad de la verdad está en los ojos* balletaz, zeinak Palma del Río Hegoaldeko Antzerki Jaialdiko Jatorrizko Musika Onenaren Saria eskuratu zuen, 2000. urtean).

Konposizio-titulua eskuratu ondoren, Züricheko Hochschule Musik und Theater-en jarraitu zituen ikasketak. Bere lehenengo ekoizpenak SGA Eren Musika Elektroakustikoaren II. Nazioarteko Saria jaso zuen, eta bere obrak Europako, Ameriketako eta Hego Koreako agertokietan entzun dira. 2005ean, Daeguko New Media Art Nazioarteko Jaialdiko musikagile gonbidatua izan zen, eta, 2009an, berriz, Züricheko Arteen Unibertsitateko musikagile egoiliarra.

Egun, inprobisazio-, harmonia- eta matematika-irakaslea da, Granadako Musika Kontserbatorio Nagusian, eta pianista bakarlari jardun ohi du ganbera-taldeetan edo orkestraz batera (askotariko errepertorioa jorratzen du). Orobat, inprobisatzaile, moldatzaile eta estudioko tekla-jotzaile aritzen da, eta jarduera horiek guztiak UNEDeko matematika-ikasketekin bateratzen ditu.

2010etik, musikagile, moldatzaile eta pianista dihardu La Maquiné keinu-antzerki eta txotxongilo konpainiarekin, eta beren azken lanak behin eta berriro programatu dira Madrilgo Teatro Realen eta Bartzelonako Gran Teatre del Liceun.

PERRAULT ETA GRIMM ANAIEN IPUINEN BILDUMA

El bosque de Grimm ikuskizunak bi inspirazio-iturri ditu (biak ere ipuin klasikoen bilduma): alde batetik, Charles Perraulten *Les Contes de ma mère l'Oye* (Ama Antzararen ipuinak); bestetik, Grimm anaien *Kinder- und Hausmärchen* (Umeen eta etxeko ipuinak). Egia da Perraultek eta Grimm anaiek sinatu zituztela bertsio anitzetan heltzen zaizkigun ipuin klasikoak. Alabaina, ipuin-bilduma horietako istorioen jatorria belaunaldiz belaunaldi ahoz transmitituriko Europako herri-tradizioetan dago (Erdi Arokoan, batik bat). Perraultek nola, Grimm anaiek hala jaso, idatzi eta haurrentzako ipuin gisa argitaratu zituzten aipatu istorioak (batzuen bertsioa ere egin zuten). Horrela, modernitateak desagerraraz zitzan saihestu zuten.

IPUINEN LABURPENA

TXANOGORRITXO

Argumentuaren laburpena

Txanogorritxo amarekin bizi zen. Egun batean, neskatoaren amona, etxea basoaren beste aldean zuena, gaixorik jarri zen, eta amak opilez eta frutaz beteriko otarra eman zion Txanogorritxori amonari eramateko. Halaber, ezezagunekin ez hitz egiteko agindu zion.



Bide erdian, otso bat agertu zitzaion, eta nora zihoan eta otarrean zer zeraman galdetu zion. Txanogorritxok erantzun zion, eta otsoak lasterketa bat egitea proposatu zion, aurrea nor helduko zen jakiteko. Bi bide zeuden amonaren etxera joateko, eta otsoak luzeenetik bidali zuen Txanogorritxo. Horrela, otsoa iritsi zen lehenengo, eta Txanogorritxoren ahotsa imitatu zuen. Amonak atea ireki zionean, otsoak emakume zaharra irentsi zuen. Ondoren, otsoak amonaren txanoa eta betaurrekoak jantzi, eta ohean sartu zen.

Txanogorritxok, iritsi zenean, amona aldatuta sumatu zuen. Horregatik, hauxe esan zion: "A zer nolako begi handiak dituzun, amonatxo!". "Zu hobeto ikusteko dira" erantzun zion otsoak. "A zer nolako belarriak dituzun!", Txanogorritxok, eta "Zuri hobeto entzuteko dira", animaliak. Azkenik, "A zer nolako hortzak dituzun!" bota zion neskatoak, eta otsoak "Zu hobeto jateko dira!" erantzun.

Orduantxe, otsoa neskatoa harrapatzen saiatu zen, baina Txanogorritxok garrasi egin zuen, eta handik hurbil zebilen egurgile batek entzun egin zion. Egurgileak otsoa jipoitu zuen, eta, aizkorakada batez, sabela ireki zion. Mirariz, amonatxoa bizirik atera zen, eta biloba besarkatu zuen. Txanogorritxok, otsoak ziria sartu ziola ikusita, aurrerantzean amaren aginduak beti beteko zituela hitzeman zuen.

ERPURUTXO

Argumentuaren laburpena

Oso egurgile pobre batek eta emazteak zazpi seme zituzten. Gazteenari "Erpurutxo" deitu zioten, jaio zenean erpurua baino txikiagoa baitzen. Gurasoek ez zutenez ezer semeei jaten emateko, basoan utzi zituzten. Erpurutxok, baina, gurasoen asmoak entzun zituen; horregatik, poltsikoak harri-koskor zuriz bete eta zapaltzen zituzten tokietan bota zituen. Basoan galdu zirenean, anaiak negarrez hasi ziren, baina Erpurutxok, harri-koskorrei jarraiki, etxeraino eraman zituen.



Gurasoek, semeak ikusi zituztenean, pozarren besarkatu zituzten, baina, tamalez, oso txiroak izaten jarraitzen zutenez, handik gutxira basoan utzi zituzten berriro. Oraingoan, Erpurutxok ezin izan zuen haririk hartu, baina ogi-mamiak bota zituen bidean. Haatik, txoriek jan egin zituzten, eta anaiak basoan galdu ziren.

Halako batean, ogro baten etxera iritsi ziren. Ogroak haurrak jaten zituen, baina bere emaztea umeez errukitu zen, jaten eman zien eta ezkutatu egin zituen. Halere, ogroak umeak aurkitu, eta jatea erabaki zuen; emazteak, baina, haurrak biharamunera arte bizirik uztea lortu zuen. Ogroaren zazpi alabek ohe handi batean egiten zuten lo, urrezko koroa bana buruan. Erpurutxo eta bere anaiak beste ohe handi batean etzan zituzten, logela berean. Gauez, Erpurutxok urrezko koroak lapurtu zituen, eta anaiei jarri zizkien (azkenengoa berak jantzi zuen). Ogroa, eskuan aizto handi bat zuela, logelan sartu zen, baina ez zenez ohartu Erpurutxok egindakoaz, alabei moztu zien zintzurra. Erpurutxok eta anaiek berehala egin zuten ihes. Gertatutakoaz jabetu zenean, ogroak "zazpi legoako botak" jantzi, eta haien atzetik abiatu zen. Ogroa ikusi zutenean, umeak harkaitz baten azpian ezkutatu ziren, eta ogroa horren gainean etzan zen. Loak sakonki hartuta zegoela ikusita, Erpurutxok agindu zien anaiei etxera korrika joateko eta bertan ezkutatzeko. Berak bota magikoak jantzi zituen, eta ogroaren etxera itzuli zen. Haren emazteari esan zion senarra bidelapur batzuek harrapatu zutela eta hiltzeko arrisku biziaren zegoela. Are gehiago esan zion: bidelapurrek aske utz zezaten, ogroak ondasun guztien bila bidali zuela. Erpurutxok ogroaren ondasun guztiak batu, eta gurasoen etxera itzuli zen, non pozarren hartu zuten; izan ere, ez ziren berriro gose izango. Ordutik aurrera, zoriontsuak izan ziren.

EDURNEZURI ETA ZAZPI IPOTXAK

Argumentuaren laburpena

Bazen behin azala elurra bezain zuria zuen printzesatxo polit bat; horregatik, amak Edurnezuri izena jarri zion. Jaio eta berehala, ama hil egin zen, eta erregea berriro ezkondu zen. Bigarren emaztea, Edurnezuriren amaordea, emakume ederra zen, baina baita oso harroputza eta bekaiztia ere.



Amaordeak ispilu magiko bat zuen, eta jakin nahi zuen guztia galdetzen zion. "Nor da munduko emakumerik ederrena?" izaten zen galderarik ohikoena, eta ispiluak "Zeu zara" erantzuten zion beti. Denborak aurrera egin zuen, eta Edurnezuri gazte ederra bihurtu zen. Egun batean, ispiluak andrerik politena Edurnezuri zela erantzun zion amaordeari.

Sutan, erregina maltzurak agindu zion morroi bati Edurnezuri basora eramateko, sastakatzeko eta bihotza ateratzeko. Morroiak basora eraman zuen printzesa, baina, hil beharrean, amaordearen asmoak kontatu zizkion, urrunera ihes egiteko eskatzeaz batera. Halaxe egin zuen Edurnezurik, eta, ibiliaren ibiliaz, etxetxo batera heldu zen. Meatze batean lan egiten zuten 7 ipotx bizi ziren bertan, zeinak Edurnezuri hartu eta babestu egin zuten.

Edurnezuri hilda zegoela sinetsita, erreginak emakumerik ederrena nor zen galdetu zion ispiluari, baina honek, oraindik ere, Edurnezuri zela erantzun zion. Harrituta, erreginak zergatik itaundu zion, eta ispiluak kontatu zion gaztetxoa bizirik zegoela eta 7 ipotx meatzarirekin bizi zela basoan.

Orduan, emakume gaiztoa, atso sagar-saltzaile mozorrotuta, Edurnezuriren bila abiatu zen. Aurkitu zuenean, sagar gozo bat eskaini zion; printzesak, pozoituta zegoela jakin barik, jan egin zuen. Lanetik itzuli zirenean, ipotxek Edurnezuri hilda topatu eta beirazko hilkutxa batean sartu zuten, neskatoaren begitartea ikusten jarraitu ahal izateko... Izan ere, modu magikoan, eder eta mardul eutsi zion.

Egun batean, printze lirain bat agertu eta Edurnezurirekin maitemindu zen. Edurnezuri bere jauregira eramaten uzteko konbentzitu zituen ipotxak, eta bidean, hilkutxaren astinaldi batek eraginda, Edurnezurik sagar-puska kanporatu zuen eztarritik. Printzesa, berpiztu zenean, printzeaz maitemindu eta berarekin ezkondu zen.

ERRAUSKINE

Argumentuaren laburpena

Bazen behin neskatila eder bat, ama hilda zuena. Aita berriro ezkondu zen, eta emakume horrek bi alaba zituen, politak bezain alferrak. Aita kanpoan zenean, amaordeak eta ahizpaordeek etxeko lan guztiak egitera behartzen zuten neskatila. Tximiniako errautsak ere garbitu behar izaten zituen, eta, horregatik, Errauskine esaten zioten.



Egun batean, erregeak jai bat antolatu zuen bere semearen omenez: printzeak emaztea hautatzeko baliatuko zuen; hala, erresumako neskatila guztiak gonbidatu zituzten. Errauskineren amaordeak soineko dotorez eta bitxiz jantzi zituen alabak, printzeak bietako bat aukera zezan nahi zuelako.

Errauskinek ere joateko gogoia zuen, baina ez zuen jauregira bertaratzeke jantzi egokirik. Orduan, maitagarri bat agertu zitzaion: hagaxka magikoa erabiliz, kuia bat karroza bihurtu zuen; saguak, osterak, zaldi eta gurdizain bilakatu zituen. Horrez gain, jantzi eder bat eta kristalezko oinetako pare bat eman zizkion. Dena den, hauxe ohartarazi zion: "Gaueko hamabiak baino lehen itzuli behar duzu, sorginkeria ordu horretan desegino baita".

Lehenengo bi gauetan, Errauskine gorteko xarmagarriena izan zen, eta ahizpaordeek ez zuten ezagutu. Printzea berarekin maitemindu zen, eta elkarrekin dantzan eman nahi zuen gau osoa, baina Errauskinek gaueko hamabiak jo baino lehen alde egiten zuen. Hirugarren gauean, Errauskinek ordua ahaztu zuen, eta ziztu bizian alde egin behar izan zuen gauerdiko kanpai-hotsak entzun zituenean. Lasterka hasi zenean, baina, kristalezko oinetako bat galdu zuen.

Neskatila maitea horrela aurkituko zuelakoan, printzeak agindu zuen erresumako neska gazte guztiek kristalezko oinetakoa probatzeko. Errauskineren etxera helduta, ahizpaordeak zapata jantzten ahalegindu ziren, baina ez zuten lortu, oin handiegiak zituztelako. Orduan, Errauskinek proba zezakeen galdetu zuen, eta, bertan zeuden guztiak aho bete hortz utzita, oina ezin hobeki sartu zitzaion oinetakoan. Printzeak jauregira eraman zuen Errauskine, elkarrekin ezkondu eta, orduz geroztik, zoriotsuak izan ziren.

IGEL PRINTZEA

Argumentuaren laburpena

Behin batean, printzesa bati, lorategian jolasean zebilela, urrezko pilota putzura erori zitzaion. Bat-batean, uretan igel bat agertu zen, eta, printzesa negarrez zegoela ikusita, pilota itzuliko ziola agindu zion, baldin eta neskatilak hauxe promesten bazion: "Nire urrezko platerean emango dizut jaten, eta nire ohean babestuko zaitut".

Printzesak zin egin zion, eta igela, pilota ahoan, putzutik irten zen. Neskatilak pilota kendu, eta, arineketan, etxerantz jo zuen; jada ahaztua zuen zina.



Gau hartan, erregeak jai bat antolatu zuen bere gonbidatuen omenez. Oturuntzan, denak poz-pozik zeudela, kolpe-hotsak entzun ziren: igela zen, eta printzesak agindutakoa bete zezan nahi zuen.

Beldurrak airean, neskatilak laguntza eskatu zion aitari, baina erregeak, istorioa jakin zuenean, hitzari eutsi behar ziola esan zion: "Hitza eman baduzu, bete egin behar duzu!". Hala, printzesak igela bere belaunetan jesarri beste erremediorik ez zuen izan, eta, denen aurrean, bere urrezko plateretik eman zion jaten. Asebeteta, igelak korroka egin zuen: "Logurak nago, eraman nazazu zure ohera!".


Printzesa azkar asko abiatu zen bere logelarantz, igelari atea aurpegian itxi nahian, baina ez zuen lortu, eta igela izara artean sartu zen. Konortea galtzeko zorian, neskatilak atzamar-puntekin heldu zion igelari, eta lurrera bota zuen. Orduan, miraria gertatu zen, bat-batean printze eder bat azaldu baitzen. "Maitagarri maltzur batek sorginduta ninduen; aske gera nendin, neskati! batek nire nahiak bete behar zituen" azaldu zion Igel Printzeak. Printzesak istorio osoa entzun zuen. Ondoren, printzeak bere jauregira eraman zuen neskati, eta ezkondu egin ziren.

Jarraian, eszenen deskribapena dago, ikuskizuneko hurrenkeraren arabera. Materiala oso baliagarria da antzezpena ikusi aurretik lantzeko, bai eta obra ulertzeko ere.

Eszenen deskribapena

Ipuinetako maitagarria

Argitxo-itxurako maitagarri batzuk barrezka ari dira, airean jolasean eta hegan. Bat-batean, ipuinetako maitagarria azaltzen da soineko zuri baten barrutik. Maitagarria sorginkeriak egiten ikasten ari da, eta, saialdi batean, Txanogorritxoren amonaren etxea agerrarazi du. Indartsu putz eginez, etxea urrundu eta baso barruan murgildu du, non ipuin guztietako pertsonaiak dauden.



Txanogorritxo amonaren etxera doa

Txanogorritxo etxera iritsi da, bere txano gorria hartu du, eta amonaren etxera abiatu da (basoaren beste aldean dago). Bidean, bere lagun animaliekin gelditu da. Hainbeste jolastu da haiekin, ezen nekatuta dagoen; eseri, eta askaria jaten hasi da. Urrunera, otsoaren ulua entzun du, eta, jakin-min handiko neskatoa denez, hura ezagutzero joatea erabaki du.



Erpurutxo basoan galdu da

Gaua heltzen ari da, eta Erpurutxo basoan galduta dago. Etsita, gurasoei deitu die, baina ez du erantzunik jaso. Ausardiak bultzatuta, etxerako bidea aurkitzen saiatu da, baina, berriro ez galtzeko, ibili ahala ogi-mamiak bota ditu bidean. Erpurutxo pozarren dabil, ogi-mamiak bota eta bota, baina, zoritxarrez, txori batek lurreko ogi-mami guztiak jan ditu.



Edurnezuri

Basoaren beste aldean, azala elurra bezain zuria duen printzesatxo bat dago. Bere amaorde maltzurra jeloskor dago, Edurnezuri bera baino ederragoa delako. Pozoitutako sagar bat eskaini dio neskatilari, eta honek, gazte eztiatsua eta xaloa denez, haginka egin dio. Jarraian, Edurnezuri lo geratu da, oso sakonki.



Ispilu magikoa

Amaordeak ispilu magiko bat dauka jauregian. "Nor da erresumako emakumerik ederrena?" galdetu dio. Bere burua ikusi du ispiluan, pozik, Edurnezuriz libratu baita.



Otso gaiztoa

Ipuin guztietako otsoa basoan ezkutatu da. Aurtengoa negu gorria izan da, eta goseak dago. Tupustean, hegan eta pozik dabilen tximeleta polit bat otsoarengana gerturatu da, konturatu gabe. Koplarik gabe, otsoak irentsi egin du.



Amonaren etxea handik hurbil dago, eta otsoak plan maltzur baino maltzurragoa pentsatu du: amonari Txanogorritxo dela sinetsaraziko dio, eta orduan andre zaharra jango du.



Igel printzea

Printzesa gazte bat urrezko pilota batekin jolasean ari da, putzu baten ondoan. Halako batean, pilota uretara erori zaio, eta, saiatu arren, ezin izan du berreskuratu. Ustekabean, igel atsegin bat agertu da, eta printzesak laguntza eskatu dio. Trukean, igelak musu bat eskatu dio, baina neskatoak, ikaratuta, ezezko biribila eman dio.

Igelak pilota hartu, eta uretan murgildu da. Printzesa, erabat etsita, haren atzetik sartu da putzuan. Igelak, adar-joka ibili ostean, pilota itzuli dio neskatilari. Eskerrak emateko, printzesak musu bat eman dio, eta, orduan, igela jasaten ari zen sorginkeria deseginda geratu da. Izan ere, igela printze urdin ederra zen.

Erraldoia

Urrun, urrats-hotsak entzun dira: Erraldoia da, amorratuta. Erpurutxoren atzetik dabil, umeak botak lapurtu dizkiolako. Erpurutxok iseka egin dio, eta Erraldoia sutan jarri da.



7 ipotxetako bat

Urrezko intxaur bat basoko zuhaitz batetik jausi da. Barruan, 7 ipotxetako bat lo dago: Mututxo da. Esnatutakoan, bere 6 anaiak topatu ditu. Pozarren, jolasean hasi dira, baina Mututxo lurrera erori eta negar batean ari da. Alabaina, beharrean hasteko ordua denez, Mututxok pikotxa hartu, eta lanera abiatu da.

Erpurutxo, oster

Erpurutxo ogi-mamiak uzten ari da bidean, basoan ez galtzeko. Mutiko lañoa da, eta ez daki txoritxo bat guztiak jaten ari dela. Azkenean, Erpurutxo konturatu da, eta txoria harrapatzeko ahaleginetan dabil: zigortu egin nahi du. Halere, txoriaz errukituta, adiskidetu egin dira. Bat-batean, otsoa agertu da, eta, aitaren batean, biak jan ditu. Erpurutxo, orain, otsoaren sabelean dago.

Errauskine eta printze urdina

Iluntzen ari du, eta erlojuan 0:00ak dira. Errauskine arineketan irten da jauregitik, sorginkeriarri eutsi nahian. Lasterka atera denez, oinetako bat galdu du. Printzeak kristalezko oinetakoa aurkitu du, eta Errauskineren atzetik bere printzesaren bila abiatu da.



Ipotxa eta Edurnezuri

Meatzeko lana bukatutakoan, Mututxo etxera doa, eta bidean Edurnezuri topatu du: printzesak hozka egin dio pozoitutako sagarrari, eta orain lo seko dago basoan. Mututxok ahaleginak eta bi egin ditu Edurnezuri esnatzeko, baina ez du lortu, eta oso goibel jarri da. Oharkabea, tripontzi bat denez, sagarrari kosk egin dio, eta bera ere loak hartu du.



Bitartean... otsoa hurbil dabil, abagunearen zain, oraindik ere goseak baitago.

Txanogorritxo

Txanogorritxo amonaren etxera doa, baina zerbaitek bertan geldiarazi du: otsoa neskatoaren txano luzea zapaltzen ari da. Txanogorritxo oso xaloa

da, ez daki arriskuan dagoela, eta barre egin dio otsoari, bere laguna izan nahi du. Otsoak, baina, kolpe batean irentsi du.




18. Otsoaren sabel barruan

Otsoak ipuin honetako pertsonaia guztiak jan ditu, eta bete-beteta dago. Nekatuta ere bai, horregatik basoko soilgune batean lo-kuluxka egitea bururatu zaio, eta lo seko geratu da.

Txanogorritxo bizirik dago otsoaren sabelean. Animalia gaiztoa lo dagoenez, artazi batzuekin ebakia egin dio sabelean, eta ipuinetako gainerako pertsonaiak askatu ditu; izan ere, horiek ere bizirik zeuden oraindik. Txanogorritxok guztiak salbatu ditu.

ESPAZIO ESZENIKOA




Ipuiñ herrikoi gehienetan, baso bat dago; pertsonaiak bertan galtzen dira, bertan ibiltzen dira, eta bertan bizi izaten dituzte txikitatik kontatu dizkiguten istorio bitxiak. Ikuskizuneko eszena guztiak esketx moduan garatzen dira, bata bestearen atzetik, eta basoa da guztien topagunea.

Eszenografia eszena-osagaia da, eta basoan barreneko bide bat irudikatzen du. Bertatik ibiltzeko moduko oholza da, eta, gainera, aktoreak ezkutatzeko erabiltzen da.

Antzara-jokoan bezalaxe, eszenografia pertsonaiek gainditu beharreko probaz eta zailtasunez josiriko bidea da.

Taularatzea oso zainduta dago, eta osagaiek xehetasun gehiegirik ez izatea du helburu, hau da, sinplifikatzea. Horretarako, zenbait bideo-proiekzioz (egurats-alaketak iradokitzen dituzte) eta zehaztasunez prestatutako argiztapen-diseinuaz baliatzen da.





El bosque de Grimm ikuskizuneko planteamenduak, arte-hizkuntzak eta egitura aproposak dira **4 urtetik gorako** ikusleen garapen ebolutibo, emozional, kognitibo eta sentsorialerako.

Ezinbestekoa da zenbait jarraibide zehaztea, jardueraren helburuak eta edukiak egokiro bete eta barneratuko badira. Era berean, garrantzitsua izango da protokolo zorrotz bati jarraitzea kontzertuan bertan, aurretik eta haren ebaluazioari nahiz errentagarritasunari begira ezarritako mekanismoetan.

Aurretik, gure ikasleak prestatuko ditugu kontzertuan jarrera ona izan dezaten; izan ere, funtsezkoa da kontzertu-ikuskizunaren emanaldiaz eta garapenaz jabetzea. Norberaren bizipenari gida honekin ikasi ahalko dituzten edukiak erantsiko zaizkio, bai eta irakasleek sakonago landuko duten guztia ere, haiek ezagutzen baitituzte ondoen beren taldeetako giza baliabideak.

Ordenari eta diziplinari eusteko ahalegina egin beharko dugu kontzertuan, nahitaezkoak baitira honelako ekimenak arrakastatsuak izan daitezen. Izan ere, helburua bada, halaber, ezaugarri hauek dituen arte-adierazpen batean ikasleak errespetua, entzuteko jarrera aktiboa eta jarrera egokia oinarri hezteak.

Kontzertua amaitutakoan, norberak bizi izandakoaz gogoeta egiteko tarte egongo da, beti oso gogoan izanik jardueraren balorazioa eta zernolako eragina izan duen ariketak gure ikasleengan.

HELBURUAK: *El bosque de Grimm* musika-ikuskizunaren diseinu pedagogikoaren xede nagusia da haurrentzat interes artistikoa izango duen obra bat sortzea, eduki orokor hauei jarraiki:

1. Arte- eta musika-ezagutzak modu dinamikoan eta entretenigarrian transmititu. Halaber, Maurice Ravel musikagilearen musika ikusle gazteei helarazi, interes artistiko eta hezigarriko ikuskizun baten bitartez.
2. Ikusleei antzezteko modu berriak erakutsi, belaunaldi gazteen hizkuntzatik gertukoagoak. Orobat, literatura, arte plastikoak eta musika uztartzen dituen ikuskizuna baliatuta, ulermen eta pertzepzio artistikoa ahalbidetu.
3. Ipuin klasikoak ezagutzeko gogo piztu, bai eta haien irakurketa sustatu ere; umeei gozatzeko aukera eman, ezagun dituzten eta garapen intelektualari begira oinarritutakoak diren gai unibertsalak abiapuntu.

KONTZERTU-IKUSKIZUNAREN JOMUGA DIDAKTIKOAK

- Maurice Ravelen musika ezagutu, errespetua garatu eta musika-ondarea balioetsi.
- Musika eta arte eszenikoak gazteenei helarazi.
- Musika- eta eszena-testuinguruak haurrek ikasteko eta ondo pasatzeko baliabide gisa aurkeztu.
- Musika-jardueren eta ekintza eszenikoen alderdi ludikoa kontuan hartu.
- Ikuskizunean, zenbait arte-adierazpen (musika, artea, antzerkia eta literatura) lotu.
- Musika-adierazpen eta adierazpen plastiko-artistikorako tekniketatik ikasi, eta balioetsi.
 - Emanaldiak ikusi bitartean arretaz entzutera eta isilik egotera ohitu.
- Musika-jardueren eta ekintza eszenikoen gainera interesa erakutsi.
- Behaketa aktiboa bultzatu, eta zenbait egoera eta gertaera adierazgarriren gainera interpretazioa eragin. Era berean, horiek guztiak ezagutzeko interesa erakutsi.
- Ipuin herrikoien gainera interesa piztu.
- Musika eta kode bisualak antzeman eta irudikatu.
 - Ikuslearen garapena ahalbidetu. Helburua da pertsona sentiberak sortzea eta etorkizunerako ikusleak ziurtatzea.
- Antzeztutako musikaren ulermena eta irakurmena garatu.
- Sormen indibiduala nahiz taldekakoa bultzatu.

Orain arte, norberaren bizipentzat jo dugu kontzertu-ikuskizuna (ikusle baten, aktoreen, musikaren eta agertokiaren artean), baina iritsi da esperientzia kolektiboa bihurtzeko unea. Arestian aipatu arauak bete badira, komenigarria litzateke bateratze-lana egitea.

1. Zaila izan al da giro egokiari eustea?
2. Jarrera aproposa izan ez bagenu, zer aldatuko zen?
3. Gustukoa izan al dugu?
4. Zer izan da erakargarriena?
5. Zer ez dugu gogoko izan?
6. Zer sentazio eta emozio bizi izan ditugu?
7. Gauza bera da ikuskizun bat zuzenean ikustea edo film bat telebistan ikustea? Edo musika etxean entzutea?
8. Gozatu dugu?
9. Itzuliko gara?

Ondoren egiteko jarduerak...

Ikuskizunean erabilitako instrumentuari buruzko iruzkina (oraingoan, pianoarena). Webgune askotan aurki ditzakegu instrumentuaren adibide on eta dibertigarriak.



1. Jarduera. Otsoak zenbait hitz jan zituen.

(Ariketa hau 4 urtetik gorako umeekin eta taldeka egitea aholkatzen da)

Ariketa honek ipuineko funtsezko hitz batzuk gogoratzen laguntzen du.

Txanogorritxo-tik zebilen, kolore-ko kapa jantzita.

Otsoak tximeleta jan zuen, oso zelako.

Edurnezurik-ari egin zion haginka, eta seko geratu zen. Ipoteak Edurnezuri aurkitu zuen, eta hain goibel jarri zen, ezen hasi zen.

Amaorde maltzurak bere magikoa hartu zuen, eta hauxe galdetu zion: "Nor da erresumako emakumerik-ena?"

Printzesak bere urrezko galdu zuen.

Erantzunak:

1. baso
2. gorri
3. gose
4. sagar
5. lo
6. negarrez
7. ispilutxo
8. eder/polit
9. pilota

2 jarduera. Basoan barrena.

(Ariketa hau 7 urtetik gorako umeekin eta taldeka egitea aholkatzen da)

1. Egin iruzkinak ikuskizunari buruz, eta deskribatu esanahi ezezaguneko eszenak.
2. Ezagutzen al zenuen ipuinen bat? Zein?
3. Zer da sinbolo bat? Bilatu hitzaren esanahia, eta adierazi zer sinbolo topatu duzun ikuskizunean. Adibidez: sagarra...
4. Idatzi pertsonaia bakoitzaren izena.
5. Zer gustatu zaizu gehien? Eta gutxien? Zer izan da dibertigarriena? Eta aspergarriena? Zer izan da misterioitsuena? Eta fantastikoena? Zer izan da alaiena? Eta tristeena?

3. jarduera. Ipuinen alderdi poetikoa.

4 - 6 urte. Marraztu ikuskizuneko unerik gogoena, eta aldera ezazu ikusi aurretik ikasgelan egin zenuenarekin. Lotu irudiko osagaiak eta ikuskizuneko ipuinetako pertsonaiak.

+ 7 urte. Egizu olerki bat ikuskizuneko ipuinetako kodeekin: sagarra, otsoa, igel-mihia, koroa, Erpurutxo, txano gorria, oinetakoa.



2. Istorioa duen musika

(Ariketa hau 6-7 urtetik gorako umeekin eta taldeka egitea aholkatzen da)

Musika-pieza bat entzuten dugun bakoitzean, zer gertatzen ari den irudika dezakegu; izan ere, erritmoa, tinbrea, instrumentua, naturan eta faunan oinarritutako soinuak... entzun ditzakegu.

1) Horregatik, ariketa honetan, lantalde bakoitzak egoera bat deskribatzen duen musika-pieza bat entzungo duzue.

2) Ondoren, musika-pieza oinarri, ipuin labur bat eta marrazki bat sortu beharko dituzue. Bukatutakoan, hurrengo eskolan, musika-piezarekin eta sortutako ipuinarekin lotutako antzezpena egingo duzue. Ez ahaztu ideiak ikaskideekin partekatzeaz (errespetatu besteen ideiak), eta... egin dezala hegan zuen irudimenak.

3) Erabili puntuazio-marka ugari.


4) Zaindu ortografia.

5) Izan irudimentsuak.

Maurice Ravel – <https://www.youtube.com/watch?v=RZiQxwhWyxk>

IPUINAK: historian, ipuin herrikoiak era askotara erabili izan dira, eta haien bertsio ugari ditugu. Hona hemen zenbait esteka lagungarri eta interesgarri:

GRIMM, Jacob eta Wilhem, "Ipuin guztiak", 1., 2., 3., 4. lib.
Argitaletxea: Alianza Editorial. Urtea: 2009



Charles Perrault (egilea), Walter Crane (irudigilea),
"Maitagarrien ipuin ilustratuak". Liburu honek Perraulten *Katu botaduna*, *Txanogorritxo*, *Loti ederra*, *Bizar Urdin* eta *Errauskine* ipuinak biltzen ditu, Cranek ilustratuta.

Basoa haur-literaturako ipuin klasiko askoren agertokia da. Hona hemen interes bereziko lan batzuk (irudiek are interesgarriagoak egiten dituzte):



En el bosque. Anthony Browne. Mexiko: FCE, 2004.
ISBN: 978-968-16-7218-8

(6 urtetik aurrera). Irudigile honek oso atsegin du beste literatur lan batzuei erreferentziak egitea. Istorio honetan, *Txanogorritxo*, *Edurnezuri* eta *Hansel eta Gretel* ipuinetako zenbait pertsonaia baso asaldatzaile batean elkartzen dira. Liburua aproposa da irakurleek beste istorio batzuk gogora ekartzeko, bai modu esplizituan kontatzen duenagatik bai basoan galdutako zenbait objektuengatik bai erdi-ikusgai dauden pertsonaiengatik.



Erpurutxo. Charles Perrault. Jean-Marc Rochette (irudigilea). Bartzelona: Blume, 2005. ISBN: 84-9801-035-7 (6 urtetik aurrera)

Edizio hau *Erpurutxo* ipuinaren erreproduzio nahiko fidela da (paragrafo batzuk baino ez ditu baztertu), eta guraso batzuek basoan abandonaturiko semeen istorioa kontatzen du. Halaber, hainbat iruditari, baso iluna dakar. Erpurutxo (txikia, baina azkarra) bizirik atera beharko da handik, eta anaiak ere salbatu beharko ditu. Amesgaiztoko basoa belaunaldi askoren haur-iruditeriaren baitan dago.

EGILEEI BURUZ:

Maurice Ravel http://es.wikipedia.org/wiki/Maurice_Ravel

Charles Perrault http://es.wikipedia.org/wiki/Charles_Perrault

Jacob eta Wilhem Grimm http://es.wikipedia.org/wiki/Hermanos_Grimm

José López-Montes www.lopezmontes.es/

Joaquín Casanova eta Elisa Ramos www.lamaquine.com/biografia.html

La Maquiné www.lamaquine.com

El bosque de Grimm <https://vimeo.com/30101771>

FILMOGRAFIA

Ma mère l'Oye (Thierry de Mey -2004-): Maurice Ravelen musikan oinarritutako fikzio koreografikoa. New Yorkeko Filarmonikak jo zuen, eta Pierre Boulezek zuzendu. Eroica productions.

BALIABIDE ELEKTRONIKOAK:

www.colorear.info

www.personales.mundivia.es/llera/cuentos/cuentos.htm

www.bibliotecasvirtuales.com/biblioteca/literaturainfantil/cuentosclasicos/index.asp